



Israeli kultur eta irakaskuntza boikota egiteko palestinar ekimena (PACBI)

Israelgo irakaskuntza eta kultur arloari boikot egiteko deialdia

Aintzat hartzen baitugu Israelek, ideologia sionistan oinarrituta, herri palestinarrari eragiten dion zapalkuntza koloniala, honela gauzatzen dena:

- Nakbaren gaineko arduraren ukazioa -bereziki, palestinar errefexiatuen arazoa sortu zuten garbiketa etnikorako oldarrak eta etxe-utziarazteak- eta, beraz, Nazioarteko legediak ezarri eta babesten dituen errefuxiatu eta desplazatuaren eskubideen onartzeari uko egitea.
- Zisjordonariaren gaineko okupazio militarra eta kolonizazioa (ekialdeko Jerusalem barne) eta 1967tik Gazarena, NBE-aren ebazpenak eta Nazioarteko legedia bortxatuz.
- Israelgo palestinar hiritarren aurka bazterkerian eta arrazakerian oinarritutako sistema, amaiera eman zitzaion Sudafrikako Apartheidaren antza duena.

Israeldar irakaskuntza instituzioetatik (gehien-gehienak estatuaren kontrolpean) eta israeldar intelektual eta akademiko gehienek lehen aipatutako zapalkuntza beren sostenguan, defentsan eta justifikazioan lagundu dute, edo beren ixililtasunaren bidez konplize izan dira.

Israelek nazioarteko legedia bete dezan, edo jazarpena, sarraski orokorrak, hautazko suntsipenak eta Apartheid harresi koloniala, besteak beste, barne hartzen duen palestinarren kontrako zapalkuntzari amaiera eman diezaion behartzeko, nazioarteko esku-hartze era guztiek orain arte huts egin dutela aintzat hartuaz.

Nazioarteko komunitateko kontzientziadun pertsonak, akademikoek eta intelektualek, historikoki injustiziaren aurka borrokatzeko ardura morala bere gain hartu izan dutela kontuan hartuta, -boikot ere ezberdinen bidez Sudafrikako Apartheida bertan behera uzteko borrokak frogatu zuen bezala-

Nazioartean hazten doan Israelen aurkako boikotaren mugimenduak palestinar erreferentzi marko bat izan behar duela adierazi duenez gero, hona hemen gida-irizpideak:

Nazioarteko elkartasunaren, koherentzia moralaren eta zapalkuntzari eta injustiziari aurre egitearen izpirituan,

Guk, palestinar akademiko eta intelektualek, zera erregutzen dizuegu nazioarteko komunitateko gure kideoi: Apartheid sistema, kolonizazioa eta Israelek egiten duen okupazioari amaiera emateko borrokaren laguntza gisa, **israeldar instituzio akademiko eta kulturalen boikotean era orokor eta iraunkorrean esku hartu dezazuela**, honako neurri hauen hartzearen bitartez:

-Arlo kultural zein akademikoan israeldar insituzioekin den ezein kooperazio, kolaborazio edo proiektutan parte ez hartzea.

-Nazio zein nazioarteko mailan instituzio israeldarren kontrako boikotaren defentsa egitea, instituzio hauei ematen zaien edozein finantzazio zein diru laguntzaren bertan behera uztea ere barne hartzen duelarik.

-Nazioarteko akademia-instituzioek Israelen des-inbertsioa egin dezatela bultzatzea.

-Israeldar politiken gaitzespenaren defentsan lan egitea, kultur elkarteek eta erakunde akademikoek edo profesionalek premiazko ebazpenen bidez gaitzespenok onartu ditzaten.

-Palestinar kultur zein akademia-insituzioak zuzenki laguntzea, laguntza mota horren baldintza agerikoa zein gordekoa Israelgo kideekin bat egin beharrik ez izatea izanik.

Izenpetzen dute:

Unibertsitate Irakasle eta Langileen Palestinar Federakuntza, Sindikatuen Palestinar Federakuntza Orokorra, GKEen Palestinar Sarea, West Bank, Maisu eta maistren Federakuntza, Idazle Palestinarren Federakuntza, Artisten Liga Palestinarra, Kazetari Palestinarren Federakuntza, Palestinar Emakumeen Batasun Orokorra, Abokatu Palestinarren Elkarte, eta palestinar jendarte zibilaren hamarnaka federakuntza, elkarte eta erakunde.

PACBI, P.O. Box 1701, Ramallah, Palestina; info@BoycottIsrael.ps;
<http://www.pacbi.org>

